




ENERITZ AGIRIANON IBILBIDEA



GOIAZ! 2017
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaren, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA



Eneritz Agiriano eskoriatzarrak berriro ikasten hasia erabaki du, lanean urte asko egin eta gero, lana topatzen lagunduko diolakoan. Gaur egun, Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa goi-mailako zikloa ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan.

Goi-mailako zikloa ikasten hasteko, zer egin behar izan duzu? Sarbide-proba prestatu behar izan nuen Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentroan (EPA), aspaldiko batxilergotik nentorrelako, eta hori gaindituta sartu ahal izan naiz.

Nolokoa izan da ikasketetara buelta?

Hasieran, gogorra; ahalegin handia egin dut. Ez nengoen ikastera ohituta; gainera, arlo teknologikoa (CNC...), Internet eta ordenagailuak ere ez nituen menperatzen... eta

ordu asko eman dizkiot: goizez gelan, eta arratsaldean liburutegian lanak egiten.

Jada urte eta erdi eman duzu ikasgelan. Eta orain praktikak egitera joango zara enpresara. Ze balorazio egiten duzu?

Oso pozik nago hartutako erabakiarekin. Gauza positibo asko eramaten ditut: talde-lan asko egin dugu, ikaskideak eta irakasleak laguntzeko prest daude beti... Tailerrean ordu asko eman ditugu: lehen mailan asko ibili gara makina konbentzionaletan eta bigarrenean CNCkoetan. Poz handia da ikustea pieza ondo irtetzen dela zuk programatutakoari esker!

Gomendatuko al zenioke Lanbide Heziketa ezagunen bati? Zergatik? Industria mundu honetara emakume gehiago animatuko nitzuke, gutxi gaude eta! 25 urte izanez gero, ikasten jarraituko nuke, zalantza barik!

DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK



GOIAZ! 2017
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](#)




DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diarritzeta Sasoarenak, Lanbide Heziketaren
eta Lanbide Orduko Departamentua

IZAN MAILLOREN ETA MIKEL MENGUALEN IBILBIDEA



Izan Maillo eta Mikel Mengual ikaskideak dira, Automatizazio eta Robotika Industrialara goi-mailako zikloa bukatzen ari dira, Miguel Altuna Institutuan. EuskoSkills txapelketa irabazi zuten, eta orain, SpainSkills txapelketara joateko entrenatzen eta makina eta tresnak batzen harrapatu ditugu:

Zer da EuskoSkills lehiaketa – SpainSkills-EuroSkills–?

I.M.: 25 urtetik beherako ikasleentzako lehiaketa da. Antolakuntzak produkzio-linea bat egiteko esaten digu, ziklo edo estazio konkretu batzuekin; adibidez, tapa jarri, ziurtatu, alde batera bota...

M.M.: Eta guk hutsetik sortu behar dugu eskatutakoa, daukagun materialarekin eta denbora jakin batean: diseinatu, muntatu, programatu, kable elektrikoak jarri, eta guztiak funtzionatu behar du.

Zer baloratzen da?

Alde batetik, azkartasuna, baina baita emaitza ere; guztiak egon behar du eskatu bezala. Guk 50etik 48 puntu lortu genituen Euskadiko txapelketan, eta orain, Espainiako beste hamalau talderekin lehiatuko gara.


Eta nolatan heldu zarete Lanbide Heziketara?

I.M.: Ni Informatikako erdi-mailako heziketa ziklo batetik nator, eta horrek programatzeko orduan lagundu egiten dit. Praktikak Gureak-en egingo ditut, eta ondoren lanean hasteko gogoz nago.

M.M.: Nik unibertsitatean urtebete egin nuen, eta, ez zitzaidanez gustatu, hona etorri nintzen. Lanbide Heziketan asko ikasi dut, erabiliz ikasten duzu, eta, segur aski, Lazpiurren praktikak egin ondoren, unibertsitatera bueltatuko naiz, ingeniari-tza batekin jarraituz.

DEBAGOIENeko LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

SONIA FLORESEN IBILBIDEA



Sonia Flores arrasatearrak ondo ezagutzen du Lanbide Heziketa; izan ere, 3. heziketa zikloa ikasten ari da, guztiak pertsonen osasun edo arretarekin lotutakoak. Egun, Osasun Larrialdia erdi-mailako ziklo berria ikasten dabil Arizmendi Ikastolan.

Zein izan da zure ibilbidea Lanbide Heziketan?

Batxilergoa bukatuta, pertsonen arretarekin lotutako zerbait ikasi nahi nuen, eta Gizarteratzea goi-mailako zikloa ikasi nuen. Ondoren, Erizaintzako Zaintza Osagarriak erdi-mailakoa egin nuen, egoitza batean lanean ari nintzen bitartean.

Osasun Larrialdia zikloa berria da eskualdean. Zergatik aukeratu duzu?

Sorospen ikastaro bat egin nuen Gurutze Gorrian, eta, ordutik hona, boluntario ibili naiz urte askoan, ber-

tan, anbulantzietan lanean. Asko gustatzen zait pertsonen laguntzea, eta nire profila osatzeko hasi naiz berri ere ikasten. Eskualdean eskainiko zela jakin nuenean, ez nuen zalantzarik izan, eta oso gustura nabil.

Beraz, ikasten, lanean eta boluntario lanak egiten ibili zara batera?

Bai; gogorra izan zen, baina gauza bat gustuko duzunean, badakizu, ez da hainbeste kostatzen....

Zer iruditzen zaizkizu Lanbide Heziketako zikloetako ikasketak?

Ikasten dituzun gauzak egunerokotasunean erabiltzen dituzu; gainera, egin ditudan zikloak osagarriak dira, eta anbulantzian noanean, Erizaintzako Zaintza Osagarrietan ikasitakoa ere erabiltzen dut. Uste dut lan-merkatuan eskaera handia dagoela pertsonen zaintzarekin lotutako zikloetan.



GOIAZ! 2017

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an

  [goiazdebagoiena](https://www.facebook.com/goiazdebagoiena)




DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Orikako Departamentua

DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

AINHOA RASEROREN IBILBIDEA



Salmenta Kudeaketa eta Marketina goi-mailako heziketa zikloko bigarren mailako ikaslea da Ainhoa Rasero, Oñatiko Gestio Heziketan (Mondragon Unibertsitatea). Egun, Edesa Industrial SL enpresan dihardu FP Dual programaren bitartez.

Unibertsitate ikasketak egin zenituen lehenik, eta ondoren Lanbide Heziketa aukeratu. Nolatan?

Bai. Aurrez, gradu mailako Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasketak egin, eta nazioartean pare bat lan-esperientzia izan nituen. Momentu batean lan gabe geratu nintzen, eta marketin arloan sakondu nahi nuen, baina ez nengoen master bat egiteko prest. Dual programa honen aukera jakin nuenean, erabaki nuen Lanbide Heziketa ikastea.

Zer eskaintzen du Dual programak?

Enpresa batean lanean hasten zara lehen maila bukatzean, eta bigarren mailako hainbat ikasgai enpresan bertan ikasten dituzu. Goizez enpresan lanean eta arratsaldean eskolak izaten

ditugu. Orain, martxotik aurrera, enpresan gaude egun osoz.

Zer eskaintzen dizu enpresak?

Nire kasuan, Marketin eta Komunikazio Departamentuan nago, eta negozio-linea guztietatik pasatu naiz bakoitzaren zereginak eta lanak ezagutzeko. Egun, Confort linean fokalizatuta nago, product manager lanean. Komunikazio arloko lanak ere egiten ditut; webguneak eta katalogoak berritu, azokatan parte hartu, eta abar.

Zer jasotzen du enpresak?

Enpresak urtebete horretan prestatu egiten zaitu, bere beharren arabera, eta ondoren, langile beharra badu, hartu egin zaitzakete, jada postua eta enpresa ezagutzen dituzulako, eta enpresak ere zuk nola lan egiten duzun dakielako.

Eta geratzeko aukerarik izango duzu?

Geroz eta ardura gehiago ematen dizkidate, eta, jende gutxi gaudenez, lan asko daukagu. Oraingoz, esan didatenez, geratzeko aukerak izango ditut maiatzean.



GOIAZ! 2017

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](#)




DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Oinezko Departamentua

DEBAGOIENENKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

MAIALEN IARZAREN IBILBIDEA



Maialen larza arrasatearrak Ibilgailuen Elektromekanika erdi-mailako zikloa bukatu eta goi-mailako Automozio zikloa ikasten hasi da, Aretxabaleta Lanbide Eskolan. Egun, tailer mekaniko baten lanean ari da, ikasketak eta lana uztartuta.

Oraindik ere badira maskulinizatutako sektore batzuk, eta horietako bat ibilgailuen arloa da. Nolatan ikasi duzu Ibilgailuen Elektromekanika?

Betidanik gustuko izan dut ibilgailuen mundua, eta lehenago ikasi ez banuen, lotsagatik izan da. Ikasgelako neska bakarra izan naiz urteetan, baina oso gustura egon naiz.

Zein izan da zure ibilbidea?

DBH amaituta, Batxilergoan hasi nintzen, baina, gustuko ez nuenez, erdi-mailako beste ziklo bat ikasteari ekin nion. Aukeratutako ikasketekin ere ez nuen asmatu, eta, azkenik, benetan gustuko nuenari heldu nion. Hau da, ibilgailuen munduari.

Erdi-mailako zikloa amaituta, goi-mailakoarekin jarraitzea erabaki zenuen... Bai, ikasten jarraitzearen, baina, egun, jardunaldi osoz lanean ari naiz tailer mekaniko batean, eta ez da erraza izaten ari ikasketak eta lana bateratzea.

Lanbide Heziketari buruz zer esango zenuke?

Lanerako prestatzen zaituen ikasketak dira, gerora beharko dituzun gauzak erakusten dira. Teoria eta praktika tartekatzen dira. Teoria nahiko ezagutu behar da, oinarri bat ematen dizute, praktiketara joan aurretik.

Praktiketan, zer moduz?

Oñatiko tailer batean egin nituen praktikak, autoak konpontzen, piezak aldatzen... Praktikak bukatzean, pena hartu nuen. Asko ikasten da.

Lana nola aurkitu duzu?

Eskolako lan-poltsara hainbat lan eskaintza heltzen dira, eta bertatik aukeratu ninduten. Izugarriko suertea izan dut: gustuko ikasketak egin eta, gainera, lanean hasi!

GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! 2017

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten

 [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA




Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Oreekako Departamentua

DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK



AITOR LUENGOREN IBILBIDEA



GOIAZ! 2017
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](https://www.facebook.com/goiazdebagoiena)



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Oregako Departamentua

Aitor Luengok 40 urterekin industria mundua utzi eta pertsoneri laguntzen lan egin nahi zuela erabaki zuen. Bergarako Mariaren Lagundia Ikastolan Gizarte Integrazioa goi-mailako heziketa zikloa ikasten hasi zen, eta egun, urte eta erdi geroago, praktikak egiten ari da, Gizakia Helburu ekimenean, Izan Fundazioan.

Zer moduz doa praktikaldia?

Oso interesgarria, laneratzeko esperientzia bat da. Jada, praktikaldia egin aurretik, 8 hilabete lehenago boluntario hasi nintzen Izan Fundazioan, igeriketa ikastaroak eskaintzen. Larritasun maila txikieneko erabiltzaileekin hasi nintzen eta egoera zailena bizi duten pertsonekin ari naiz orain, Lasao-ko zentroan.

Zure lehen ikasketak industria arlokoak izan ziren, ezta?

Bai, FP2 industri maisutza zena ikasi nuen, Mikromekanika-n, eta urte asko egin ditut industrian lanean. Arazo

batzuk direla eta, lana arlo sozialean eta arazoak dituzten pertsonekin egitea erabaki nuen. Makinetatik pertsonetara. Apustu handia izan da, baina oso pozik nago egindako aukerarekin.

Nolako izan da ikasketetara buelta? Indarrarekin hartu dut; nire helburuak garbi nituen, eta motibazio handia. Motza egin zait, bi urtean esperientzia pilo bat bizi izan ditugu ikasgelan: emozioak, zailtasunak, enpatia eta antzekoak landu ditugu. Horrek ikaskideen arteko harreman estua eta konfiantzazkoa sortu du. Gizarte Integrazioa ikasterakoan sortu daitekeen harremana seguru nago bestelako ikasketak egiten diren geletan ez dela sortzen.

Eta praktikak bukatutakoan, zer?

Auskalo non aurkituko dudana, baina garbi daukat arazoak dituzten pertsonekin, drogekin arazoak dituztenekin edota atzerritarrekin lan egin nahi dudala. Horretarako bidea zabalitzen ari naiz orain.

DEBAGOIENeko LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

JOSU TIJERAREN IBILBIDEA



GOIAZ! 2017

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaten, Arrasaten


  [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Oinezko Departamentua



Josu Tijera gaztea Mekanizatuko erdi-mailako heziketa ziklo bat egiten ari da Oñatiko Zuazola-Larraña Institutuan. Ikasketak batxilergotik jarraitu beharrean, Lanbide Heziketa aukeratu du ikasketekin jarraitzeko:

Zergatik aukeratu duzu Lanbide Heziketa?

Garbi nuen ez nuela unibertsitatera joan nahi, ezta batxilergoa egin nahi ere. Mekanizatu arloa eta tailerra gustatzen zait, eta horregatik aukeratu dut. Aspalditik neukan erabakita Lanbide Heziketa egingo nuela.

Lagunek edota gurasoek zer esan dizute Lanbide Heziketa aukeratzeagatik?

Nagusiagoak diren lagunek ere oso ondo hitz egin didate ikaske-

ta hauei buruz, eta horrek are gehiago animatu nau. Gurasoak ere nire aukerarekin ados agertu dira.

Zein ezberdintasun topatu dituzu eskolatik Lanbide Heziketara?

Hemen ez daude hainbeste ikasgai eta liburu. Tailerrera joaten gara, marrazketa egiten dugu, mekanizazio prozesuak eta automatizazioa ikasten ditugu, piezak tresna desberdinekin neurtzen ikasten ari gara... Goiza konturatu gabe pasatzen zaigu!

Gustura zaude egindako aukerarekin?

Bai; ez nuke atzera egingo. Oso gustura nago. Gainera, goi-mailako ziklo batekin jarraitzeko asmoa daukat mekanizazio arloan, gaur egun enpresek maila hori eskatzen dute eta.